


7. Funtsezko Baliabideak

Gure enpresak bere jarduera hasteko hainbat baliabide behar ditu:

- Giza- baliabideak: zer nolako pertsona taldea behar dituen enpresak jarduteko.



- **Zuzendaritza orokorra** (Maidier Ahedo): Gainerako zuzendari guztiak bai eta enpresako langileak mobilizatu eta kontrolatu.
- **Zuzendaritza finantzarioa** (Aida Pascual de Zulueta): Enpresaren dirua administratu, aktibitate finantziero guztia kontrolatu.
- **Kontabilitate zuzendaria** (Oihane Fraile): Sartzen eta ateratzen den diru guztia kontrolatu (erosketak, salmentak sortutako diru irabaziak eta galerak).
- **Hornikuntza zuzendaria** (Unai Alvarez): Produktua fabrikatzeko behar diren materialak aukeratu eta erosi, produktua ekoitzi ahal izateko.
- **Merkatal zuzendaria** (Kontratutako norbait): Produktuaren salmentaz arduratu; eslogana, publizitatea, salmenta lekuak...
- **Ekoizpen zuzendaria** (Kontratutako norbait): Produktuaren ekoizpenaz arduratuko da, gure zapatilak saldu ahal izateko.

Langileak kontratatuko ditugu, lehen azaldutako jarduera guztietan parte hartuko dutenak, beti ere zuzendariaren agindupean. Langile hauek aurrera eramango duten jardueran edo lanean espezializatuak izango dira, hau da, formakuntza dutenak kontratatuko ditugu, gure produkturako kalitaterik onena lortu nahi dugulako. Haien profilari

dagokionez, pertsona langileak, aplikatuak eta trebeak bilatzen ditugu, ideia berritzaileak eskaintzen dituztenak eta enpresaren onura bilatuko dutenak.

- Baliabide fisikoak: Ibilgetua eta izakinak. Beharrezkoak diren lokala, makinak, altzairuak eta tresnak. Lokalari dagokionez, bakoitzak diru kantitate bat jarrita alokatutakoa izango da. Gainerako materialak ere, erosi egingo ditugu. Horretarako diru mailegua eskatuko dugu bankuan, proiektuarekin hasteko beharrezkoa dugun diru kopurua lortzeko.
- Baliabide intelektualak: beharrezkoak diren baliabide teknologikoak dira; programa informatikoen ezagutza, trebetasunak... Lehen aipatu bezala, gure produktua aurrera eramateko beharrezkoak diren trebetasunak dituzten langileak bilatu eta kontratatuko ditugu.
- Finantza-baliabideak: zer baliabide ekonomiko-finantziero beharko ditugun jarduera aurrera eramateko. Honen barruan hurrengoak daude:
 - Inbertsioa egiteko daukagun dirua. Gure poltsikotik inbertitu dezakeguna adostatuko dugu, enpresaren lehenengo inbertsioarekin hasteko.
 - Zein diru laguntzak dauzkagun gure esku. Gure kide eta familiei diru maileguak eskatu ahal dizkiegu, gainera, bankuari mailegu bat eskatuko diogu inbertsioarekin jarraitzeko.
 - Beste enpresa batzuekin elkartzeko edo azpikontratatzeko posibilitateak dirua lortzeko. Lokalaren garbiketa egiteko bai eta produktuaren garraiorako ere, aparteko beste enpresa bat azpikontratatu dugu. Hasiera batean ez gara gainerako enprekin elkartu nahi, baina aurrerantzako posibilitate gisa ikus dezakegu.